



# Jesús Prieto de Pedro, Administrazio Zuzenbideko irakaslea eta UNEDeko errektoreordea

“Arauk, hartzaileek ulertzeko moduan  
idatzi behar dira”

**Jesús Prieto de Pedro** valladolidarra Zuzenbidean doktorea da –Doktoregoko Ezohiko saria jaso zuen gainera–. UNEDeko Zuzenbide Fakultateko dekanoa eta errektoreorde ohia, bertako Zuzenbide Administratiboko irakaslea da gaur egun. Era berean, Kultur Eskubideen Andrés Bello katedraren titularrak da (unibertsitateen arteko lankidetzarako programa latinoamerikarra). Hainbat aldizkari juridikotako Erredakzio Kontseiluko kidea da, eta hogeita hamar bat liburu kaleratu ditu Zuzenbide Publikoaren inguruan. Hizkera juridikoa du azken urteotan ikerketetako gai nagusi.

Deustuko Unibertsitateak *Teknika Legegilea eta Eleaniztasuna*-ren inguruan antolaturiko jardunaldietara gonbidatutako parte-hartzaileetako bat, Jesús Prieto de Pedro irakaslea izan zen. Hona hemen berarekin izandako solasaldia.

**1.**

Gauzak hasieratik behar bezala ulertzeko, azalduko al zeniguke zer den hizkera juridikoa?

Hizkera juridikoa, beste hizkera asko bezala, hizkera espezializatu bat da. Lanbide guztietan sortu da hizkera espezializatu bat, hizkera zehatz eta ekonomiko bat, lanbidearen ezagutzak edo teknikak adierazteko. Kultura batek zenbat eta hizkera espezializatu gehiago izan, orduan eta konplexuagoa izango da.

Hizkera espezializatuen arazoa da espezialitate horietatik kanpo daudenek ulertzeko zailtasunak dauzkatela. Gizartean zama gehiegirik ez duten arloen kasuan horrek ez du garrantzi handiegirik, baina Zuzenbidearen kasuan aldiz bai, Zuzenbidea gizarte bateko elkarbizitza arautzeko ematen den erregelen sistema delako. Hizkera juridikoa, hizkera teknikorik garrantzitsuenetarikoa da, garrantzitsuena ez bada.

**2.**

Zertan desberdintzen dira hizkera juridikoa eta hizkera legala?

Hizkera juridikoa, zabalagoa da. Zehatzago izateko, hizkera juridikoez hitz egin beharko genuke, pluralean, Zuzenbidearen eremu guztiak barnebiltzen dituelako: Botere Judizialaren hizkera,

Administrazioaren hizkera, Botere Legegilearen hizkera, eta arauak darabilten hizkera.

Hor, klasikoa den bereizketa bat dago. Autore batzuek, Zuzenbideko hizkeraren barruan, desberdindu egiten dituzte batetik juristen hizkera (abokatu, epaile, funtzionarioen hizkera) eta bestetik arauen hizkera, edo hizkera legala. Zilegi da desberdintasun hau egitea, zeren eta arauen hizkera jatorrizko hizkera bat da, baina juristen hizkera eratorria da, azken batean abokatu, epaile eta abarrek hizkera legala interpretatzen dutelako. Bigarren hizkera mota hau, jatorrizko hizkeraren edo hizkera legalaren metahizkera da. Bereizketa hau oso klasikoa da doktrinan.

Bestetik, hizkera legalaren baitan, arauen arabera hizkerak desberdin ditzakegu: Konstituzioko hizkera, legetako hizkera, erregelamenduetako hizkera... Baina bereizketarik garrantzitsuenak, nolahi ere, jatorrizko hizkeraren (arauak idazteko erabiltzen dena) eta juristen hizkeraren (arauen inguruko iruzkin eta interpretazioak egiteko erabiltzen dena) artekoa da.

### 3.

Egin al liteke desberdinketa hori Common Law-n, Zuzenbidea epaileek ere sortzen dutela kontuan hartuz?

Bai, egin liteke, baina ez hain modu garbian. Jakina da sistema juridiko anglosaxoiatan epaileek garrantzi handia daukatela arauak sortzeko orduan, baina ez da ahaztu behar epaileek sortutako arauak gain, lege formalak (*statutes*) daudela. Ez daukate sistema erromanistikoetan daukaten garrantzi berbera, baina gero eta gehiago dira.

### 4.

Hizkera legalari dagokionez, ba al dago bi eredu daudela esaterik, hau da, eredu kontinental eta eredu anglosaxoia? Zein ereduri jarraitzen dio Europar Batasuneko hizkerak?

Nik ez dut uste hizkera legalaren ereduak daudenik. Praktikan eredu desberdin batzuk baldin badaude, herrialde bakoitzak kultura desberdina daukalako da, baina ezin da *a priori* bi eredu teoriko daudenik esan. Bai Zuzenbide anglosaxoiko sistemak, bai Zuzenbide erromanistikokoak, aspaldi konturatu ziren arauetako hizkeraren kaskartasunaz. Sistema batean zein bestean dauzkate argitasun falta, gramatikaltasun falta, gehiegizko teknizismoa eta horrelako arazoak. Gero, praktikan, bakoitzak

bere modura konpontzen ditu. Konponbide frantses bat eta konponbide ingeles bat daudela esan liteke, baina ezin da bereizketa argirik dagoenik esan. Ereduak beharrean, joerak direla esan beharko genuke. Joera ingelesari dagokionez, Ingalaterran eta EEBBetan, herrialde anglosaxoiatan alegia, *Plain English* izeneko mugimendu bat jarri dute abian, sinplifikatzeko helburua duena, baina ez hizkera bakarrik, baizik eta baita kultura eta Zuzenbidea ere. Joera frantsesak, ostera –lehen egin dudan oharra kontuan hartuz, betiere; alegia, ezin dela bi eredu daudenik esan–, gehiago errespetatzen du kultura juridikoa, hau da, jatorri erromanistikoko Zuzenbideetan dauden elementu historikoak. Nire ustez, *Plain English* formula ez da hizkuntza hispanikoentzat egokiena.

Europar Batasuneko egoera, berriz, oso bitxia da. Zuzenbide Komunitarioan benetan kezkatzen nauena teknika legegilearen kaskartasuna da. Astuna da benetan Amsterdamgo edota Maastrichteko Tratatuak hartu eta zerbaiten bila hastea, hain dira konplexu eta laberintzikoak egitura, eta erreforma berriak sartzeko modua. Erakundeak izendatzeko erabiltzen diren deiturak ere oso nahasgarriak dira; jendeak ez ditu ondo bereizten. Asko dago egiteko. Maastrichteko Tratatuari Amsterdamen egindako azken erreforman, teknika araugilea hobetzeko aurreikuspen bat egin zen. Aplikatzen hasiak ote diren ala ez, ez dakit, baina behintzat jabetu dira Zuzenbide Komunitarioaren teknika legegilea hobetu beharraren garrantziaz.

Hala ere, arrisku bat dago hor: arau europarren teknika legegile eskas horrek, arauen trasposizioaren bidez, barne Zuzenbideei eragitea. Horregatik, jarrera kritiko zorrotz bat hartu behar da Zuzenbide europarrak dauzkan arazo hauen aurrean.

### 5.

"Plain English" delakoa aipatu duzu. EAeko Administrazioak ahalegin handia egin du euskarazko testu administratiboetako hizkera sinplifikatzeko, ulerterrazagoak izan daitezten. Euskara juridikoak tradizio idatzirik ez daukanez, testu administratiboen itzulpenen kalitatea hobea izango omen zen itzuli beharreko testuak sinplifikatuz. Ukaezina da emaitzak garrantzitsuak izan direla, baina, zenbaitetan, sinplifikazioa gehiegizkoa izan dela dirudi, eta euskarazko testuek ez dutela gaztelerazkoen esanahi osoa biltzen.

Lehenik eta behin esan behar dut ez ditudala Euskal Herrian hizkera legala

sinplifikatzeko dagoen proiektuaren zehaztasunak ezagutzen, baina, esaten ari zarenaren arabera, arazo bat daukazu. Euskarazko hizkera eta terminologia juridikoa finkatu gabe daudela sinplifikatzen hasiz gero, arau juridikoak interpretatzeko zailtasunak sortuko dira. Kontzeptu eta terminologia juridikoak sortzeak bere denbora eskatzen du, baina, gerora begira, hori da euskarazko hizkera juridikoa ona eta aberatsa izateko biderik onena. Denbora behar da, bai, baina merezi duelakoan nago.

## 6.

"Plain English" mugimenduarekin jarraituz, ez ote daude sistema kontinentaletako hizkera legalak nolabaiteko sinplifikazioaren beharrean, hiritarrek arauen edukia hobeto uler dezaten? Lege batzuk ulergaitzak dira...

Ados nago sinplifikatu beharrarekin, baina ñabardura batzuk egin nahiko nituzke. Lexikoari eta kontzeptuei eragiten dien sinplifikazioa, orokorrean, ez zait gehiegi gustatzen, baina estiloa eta erretorika sinplifikatzearekin erabat ados nago. Euskarak desabantaila bat dauka, hizkera juridiko historikoa falta zaiolako. Baina era berean abantaila bat dauka: hutsetik hasita, hitz betegarriak eta hitzontzikeriak ekidin ditzakeela, edo, aspaldi hil zen Zuzenbide Konstituzionaleko irakasle batek, Nicolás Pérez Serranok, esaten zuen bezala, arauen "ehun adiposo" guztia. Hizkera juridikoan aspaldiko bizio asko eta asko daude. Gertatzen dena da hainbeste errepikatzearen ondorioz, hizkerak bere-bereak dituela pentsatzen dugula azkenean, baina berez soberan daude. Horrelako bizioak dira, hain zuzen ere, hiritarrek hizkera legala ulertu ahal izateko eragozpenak sortzen dituztenak.

## 7.

Paradoxikoa da Kode Zibileko 6. artikulua dioena: "legeak ez ezagutzeak ez du hauek bete behar izatetik salbuesten". Horren arabera, hiritarrek ezagutu edo ez ezagutu, araudi osoa inposatu behar da. Ostera, sistema juridikoa konplexutzen joan ahala, ezinezkoa gertatzen da arau guztiak ezagutzea. Ez al litzateke errealistagoa izango hiritarrek arau argi zehatz batzuk –garrantzi berezia dutenek batik bat– ezagutu beharko lituzketela esatea?

Argitasuna eta demokrazia oso lotuta daude. Eta garrantzitsua da hori azpimarratzea, hizkera legala hobetzeko proiektua justifikatu ahal

izateko. Demokraziaren elementu etiko-politiko-juridikoa kontuan hartu gabe, oso oinarri ahula izango genuke, hizkera legala hobetzeko proiektuaren justifikazioa estetiko hutsa izango litzatekeelako. Baina proiektu hau demokraziaren eskakizun bat bezala ikusteak askoz ere trinkotasun handiagoa ematen dio.

Zergatia sinplea da: legeak herriaren borondatearen adierazpena baldin badira, arau horiek hartzaileek ulertzeko moduan idatzi behar dira. Arauen hartzaileak, gainera, zeharka bada ere, arauen sortzaileak dira, herriak hautatzen dituen ordezkariak direlako arauak sortzen dituztenak. Hortaz, hiritarrek paper bikoitza daukate: batetik arauen hartzaile zuzenak dira, eta bestetik zeharkako sortzaileak, edo, sortzaileak baino gehiago, arauen existentzia legitimatzen dutenak.

Hor beste kontu bat ere badago: ea nola den posible Kode Zibileko 6. artikulua dioenaren arabera (legeak ez ezagutzeak ez duela hauek bete behar izatetik salbuesten), hiritarrek milaka eta milaka lege ezagutzen dituztela pentsatzea. Gauza konplexua da. Doktrinaren ikuspegitik, ezin da esan "hiritarrek ez dituztenez legeak ezagutzen, ba ez zaizkie aplikatuko". Horrek sistema juridikoaren gainbehera ekarriko luke. Joaquín Costak esaten zuen "herriak ezagutzen dituen legeak bakarrik direla lege", baina ez da egia. Politikariei arauak egiterakoan arretaz ibil daitezela eskatzeko balio dezake, arauak idazterakoan kalitatea kontuan izateko. Baina hori demagogia izango litzateke. Legeetako hizkera hobetzeko planek ez dute arauak argiak eta zehatzak izatea lortuko –hainbeste dira sortzen diren arauak...–, eta, beraz, komenigarria izango litzateke kualitatibo nahiz kuantitatiboki garrantzitsuenak diren arauak zeintzuk diren zehaztu, eta arau horiek kalitaterik onenarekin idaztea. Kalitatearen ikuspegitik, ordenamendu juridikoan oinarri-oinarrizkoak diren arau batzuk daude (Kode Zibila, Kode Penal, etab.). Legedi horien hizkera asko zaindu behar da, bai legedi estatalena, bai autonomikoa. Ez dut esan nahi gainerako arauak edozein modura idatz daitezkeenik, baina aipatutakoak bederen hizkuntzalarien eta komunikazioan aditu direnen esku ipini beharko liriteke.

Beste alde batetik, Kode Zibileko 6. artikulua entzat arau guztiak berdina dira, baina juridikoki berdina izan arren, soziologikoki ez dira berdina. Arau gehienak Administrazioak ematen ditu, eta arau horiek zenbat eta espezializatuagoak izan, orduan eta gutxiago izaten dira arau horren hartzaileak. Hizkeraren aldetik, zer da kezkatzen nauena? Ba, hiritar batzuek ezin ulertu izateak baino gehiago, arau horien hartzaileek ez ulertzea.

Nire ustez, arau guztiek, daukaten espezializazio maila daukatela, termino zuzen eta zehatzak erabili beharko lituzkete. Eta gizartean garrantzi berezia daukaten arauak oso kontu handiz idatzi beharko lirake, prestaketa horretan juristek, hizkuntzalariek, komunikazioetan adituek eta teknika legegilean adituek parte hartuz.

Baina arauen garrantzia sozialaren eta juridikoaren arteko desberdinketa hori ez da sektore guztietan ematen. Zuzenbide Fiskalean, adibidez, hiritar guztioi aplikatzen zaizkigun arau batzuk daude (hala nola, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzkoak), eta arau horiek teknizismo juridiko, fiskal eta kontableez beteta daude. Eta hiritarrek, gainera, beren buruari aplikatu behar dizkiote arau horiek, autolikidazioa egiterakoan adibidez. Nire ustez Administrazioak izan beharko luke likidazio hori egin beharko lukeena. Eskura dauzka guri buruzko datuak eta informazioa. Esan nahi dudana da hiritar guztiei eragiten dieten arauen kasuan, ahalegin berezia egin beharko litzatekeela arau horiek benetan argi eta laburrak izateko, eta behar-beharrezkoak diren teknizismoak bakarrik erabili beharko lirakekeela. Kontua ez da teknizismoak erabat baztertzeara, zeren erabili egin behar dira. Ezin zaio teknizismo juridiko edo ekonomiko-kontableak erabiltzeari utzi, bestela araua ez litzatekeelako zehatza eta segurua izango. Eta argi dago indarrean dagoen legedia asko hobetekeela.

Sozietateen gaineko Zergaren kasua, aldiz, desberdina da, gizarteko esparru txiki bati bakarrik eragiten diolako, batik bat enpresei. Eta enpresek adituen aholku eta laguntza jasotzen dute. Kasu horretan ez du hainbeste axola legea teknikoak izateak.

Beste adibide bat: Zirkulazio Zuzenbidea. Legedi hori guztioi aplikatzen zaigu, eta beraz asko zaindu beharko litzateke bere idazketa. Baina salgai arriskutsu zehatz baten garraioa arautzen duten arauak teknikoak izatea ez da hain kezagarria, askoz ere jende gutxiagori aplikatuko zaizkiolako.

Nahiko soluzio praktikoak ematen ari naiz, ikusten duzunez. Ezin da pentsatu epe laburrean hizkera legalaren ulergarritasun arazo guztiak konponduko direnik; egungo "legislarragia" eta arauen produkzio masiboa ikusi besterik ez dago. Baina kasurik garrantzitsuenek behintzat badaukate konponbiderik.

## 8.

Hizkera juridikoari soziolektoa izatea leporatzen zaio, Zuzenbidean aditua ez dena kanpoan uzten duen hizkera bat delako. Nolanahi ere, soziolekto guztietan faktore psikologiko bat dago; izan ere, eska al dakioke elkargo bati guzti-guztiek ulertzeko moduko hizkera erabiltzea?

Egia da gizarte honetan talde profesionalak, beren hizkeraren bitartez, kanpoan uzten dituztela hizkera hori ulertzen ez dutenak. Lanbidearen boterea adierazteko modu bat da. Baina Zuzenbidean ezin da horrelakorik onartu, bertako balioak (askatasuna, demokrazia, segurtasun juridikoa, justizia, etab.) funtsezkoak direlako gizarte guztiarentzat.

Hala ere, gauza bat argitu nahiko nuke: Zuzenbidea berez ez da soziolekto bat. Ez da Zuzenbideko profesionalen argot bat, teknolekto bat baizik, hizkera berezi bat. Eta hain zuzen ere horixe da eragotzi behar dena: Zuzenbideko hizkera teknikoak, gehiengoaren borondatea islatzen duen hizkera hori, gizarteko sektore jakin baten hizkera bihurtzea.

## 9.

Zein da zure iritzia "politikoki zuzena den hizkerari" dagokionez?

"Politikoki zuzena den hizkerak", batzuetan, zuzentzeko eta gizartea hezteko helburua dauka, talde batzuren irudi txarra ematen duten terminologia desegokiak baztertzeara. Feminismoaren edo arrazismoaren kasuetan, hizkera honek ohartarazi egiten du. Berez ez ditu atzean dauden arazoak konpontzen, baina behintzat diskriminazio hori hedatzea galarazten du.

Beste kasu batzuetan, hala ere, kaltegarria da hizkera politikoki zuzen hori, mugak ezartzen dizkiolako adierazpen askatasunari eta Gobernuak kritikatzeko aukerari. Orain bertan, alderdi politikoek eta gobernuek adierazpen askatasunari eta kritikatzeko eskubideari ipintzen dizkieten murrizketak datozkit gogora.

# 10.

Zure hitzaldian, "Kulturstaat" eredia autonomien Estatuari aplikatzeko modukoa izan daitekeela aipatu duzu.

Nahasgarria da Kulturaren Estatuaren ideia. Baliteke inork pentsatzea botere publikoei kulturaren arloan gura duten bezala esku hartzeko aukera ematen diela. Baina Kulturaren Estatuaren ereduaren klausula, Estatuko gainerako klausulei lotuta dago: Estua Zuzenbidezkoa da (norbanakoaren oinarritzko eskubide eta askatasunak bermatzen ditu), demokratikoa (borondate orokorra zehazterakoan pertsona guztien parte-hartzea ziurtatzen du, eta talde minoritarioak errespetatzen ditu), eta soziala (hiritarrei gutxieneko prestazioak bermatzen dizkie). Kontzeptu hau beste klausuletatik eratorritzen da, eta garrantzi berezia ematen dio gaur egun kulturak jendearentzat daukan esanahiari. Horregatik iruditzen zait klausula hau autonomien Estatuari aplikatzeko modukoa.

Elkarrizketatzailea: Itziar Alkorta  
Itzultzailea: Koro Garmendia

